

auzoan artez

creando en comunidad



**Artekalek antolatuko bitartekaritza
jardunaldien laburpena**

Barakaldo Mayo 2019

AUZOAN ARTEZ – CREADO EN COMUNIDAD

BITARTEKARITZA JARDUNALDIAK

Barakaldoko Antzokia, 2019ko maiatzak 2 eta 3

Kulturak eta arteak erkidegoa sortzen dute. Izan ere, gizabanakook badaramagu elkar lotzen gaituen kultura arrastoa soinean. Hain zuzen, kultura izaera honek egiten gaitu komunitate eta honetxek ematen digu geure herritargo sena. Arlo artistikoari dagokionez, sorkuntza prozesua da espazioa eraldatzeko unea. Prozesu horretan, artistak bere jakinduria propioa, nortasuna, garatu ditzazkeen gaitasunak eta ingurunearekiko eraikiko duen harremana sakonki hausnartuko ditu.

Hala ere, egungo industria kulturalaren arauak norantza bakarreko harreman hierarkikoen menpe dirauten ekintzaileak eta jarduteak eraiki dituzte. Honela, kultura alorrek hornitzaileak eta hartzaileak besterik ez ditu aintzakotzat hartzen. Eta, kultura bera, “mundua eraldatzeko tresna” izatetik, soilik kontsumo-sistemaren parte izatera iritsi da.

Artekalek antolatutako “Auzoan Artez – Creando en Comunidad” jardunaldi hauen helburua gogoetarako ariketa kolektiboa sustatzea izan da. Era honetan, eta nork bere testuingurua abiapuntu harturik, geure arbasoengandik jasotako kultur-ohiturak hackeatzeko modu ezberdinak hausnartzeko tartea eskaini digu, izan ere, harreman artistiko berriak eraikitze aro berria iritsi da. Hortaz, ba al dago kultura hegemonikoak ezarritako rol nagusiekin apurtzeko aukerarik? Aditu- sortzaile-ekintzaile eta herritargo-hartzaile-pasibo deritzen horiek, alegia. Zein eraldaketa jasaten du herritargoak, errealitate berriak irudikatzeko eta eraikitze jardutea talde-lana edo prozesu parte-hartzailea denean?

Egungo garaiotan, zeinetan bizikidetzeta eta bateratzea arrazoibide politikoen ardatz bilakatu diren, artea eraldaketa sozialerako tresna gisa erabiltzearen jardunbide honek berebiziko garrantzia du. Migrazioak, eskuin-muturreko korrante politikoen joera igoerak eta guk geuk sustatutako kapitalismo basatiak herritargo-sena aintzakotzat hartzeri garrantzia. Eta, ondorioz, guztion ongizatea eta eraldaketa soziala berriz ere ardatz bilakatzera behartuta gaude.

Kultur-bitartekaritza edo bitartekaritza artistikoa, hezkuntza artistikoa, elkar-sorkuntza, erkidegoan landutako jardunbide artistikoak, eta abar, egungo politika kulturaletan interes handia piztu duen gai baten inguruko pentsamoldea edo eta kezka horri eman zaion erantzuna besterik ez dira; hots, ikus-entzuleen eta artistaren arteko harremana birsortzearen eta garatzearen beharra, hain zuzen. Izan ere, kultura guztion onurarako tresna dela abiapuntu harturik eta herritargoak eskura izateaz gain, gizabanakooi kultur-ekimenetan esku-hartzeko aukera egotzi zaigu.

“Auzean Artez – Creando en Comunidad” ekimenak artearen alorreko hainbat profesional elkarretaratu ditu, jatorri eta testuinguru ezberdinetan jarduten direnak, hain zuzen; hala nola, Bilbo, Cambridge, Errenteria, Bartzelona eta Barakaldo, besteak beste. Topagune honek, alde batetik, inspirazio-iturritzat jo ditzakegun hainbat bitartekaritza-prozesu ezagutarazi dizkigu, dagoeneko burutuak izan direnak eta oso esanguratsuak, oro har. Bestetik, bitartekaritza artistikoari ekiten diogunerako, oinarri kontzeptual bateragarri bat eraikitzea erraztu digu. Eta, azkenik, harreman berriak sortarazi ditu pertsona, ideia eta erakunde ezberdinen artean.

Jardunaldiotako aurkezpenek aniztasuna izan dute ardatz. Izan ere, haietan orotariko gaiak hausnartu ez ezik, proiektu anitz horien mamia oso modu ezberdinen bitartez barneratu ahal izan dugu; hala nola, hitzaldiak, mahai-inguruak, proiektuen erakustaldiak, tailerrak, eta abar. Azkenik, mintzaldi hauen lan-taldea Artekaleko kideek, bertako eta Estatuko kultura saileko hainbat ordezkari, arte eta kultur-ekintzaile ezberdinek eta Barakaldoko eragile nagusienek osatu dute.

Vídeo resumen de las jornadas

<https://www.youtube.com/watch?v=pp94p8EIIlo>



Erresuma Batuko herritargo babesgabeenekin elkar-sorkuntza.

Michael Judge, New International Encounter (NIE), Erresuma Batua



[NIE](#) konpainiak egoera sozial, ekonomiko eta geografiko ahulean bizi diren pertonekin egiten du lan. Ezaugarri hau abiapuntu harturik, konpainia honek ekintza artistikoa zentzumena pizteko elementu gisa ulertzen du; beste era batera esanda, konfidantza landu eta nabarmentzea ahalbidetzen duen ekimen gisa. Artea jorratzea lan boteretsua da oso eta, hortaz, elkarbanatu egin behar da. Horretarako, inguruko jende gaztearen eta herritargoaren ahotsa entzutea funtsezkoa da. Izan ere, pertsona guztiek merezi baitute gertaera garrantzitsu batean parte-hartzeko aukera izatea; are gehiago, diru publikoari esker garatutako proiektuei buruz ari garenean. Alabaina, proposamen hauek kultura eta arte-ekimenetara hurreratzeko oztopoz beteriko aukera eskasak dituen herritargoa aintzakotzat hartu beharko lukete, betiere haien parte-hartzea sustatuz eta sententzioak elkarbanatuz.



Elkar-sorkuntzari dagokionez, era askotako proiektu artistikoak aurki ditzakegu. Honela, prozesuak oso modu ezberdinetara jorratzeaz gain, parte-hartzaileekiko harremana eta haien esku-hartzea hamaika modutara eratu daitezke. François Matarassoren hitzetan “elkar-sorkuntza proiektu ororen gakoa zenbaterainoko ahalmena eta zer nolako boterea eskaini dezakegun horretan datza”. Talde-sorkuntza jardutean modu “onak” edo “txarrak” ez dauden arren, argi dago parte-hartzaileei eskaintzen zaien esku-hartze maila edo ahalmena artistak berak bere gain hartzen duen boterearen araberakoa dela. Zenbat eta handiagoa izan artistak parte-hartzaileei emandako boterea sorkuntza prozesuan, are partekatuagoa egongo da botere hori lan-taldean.

NIEk garatutako elkar-sorkuntza proiektuen harira, “[Top Secret at Alconbury](#)” eta “[Tales from the Edge of Town](#)” bi adibide esanguratsu dira. Bi ekimen hauek kultura eskura ez duten gazteen parte-hartzearen laguntzarekin burutu dira; harresi sozialak, ekonomikoak edo eta geografikoak jasaten dituzten herritargo babesgabeenekin, alegia. NIEk interesgarri deritze Cambridge-eko hirigunetik at edo “kanpoaldean” dirauten komunitateei; izan ere, gune horietan, artea *placemaking* (nortasun- edo leku-sortzaile) gisa gertatu ohi da, hau da, komunitate zehatz batzutara estuki loturik dauden istorio eta ideiak garatzeko abilezia berezkoa dute. Aipatutako lehenengo proiektuan, 40 gazterekin ikuskizun bat sortu eta antzeztu dute Alconbury-ko bunker nuklear izandako espazioan, Cambridge hiritik 60 bat kilometrora eta garraio publikoen sareetatik urrun kokatzen den landagunean, zehazki. Bigarren proiektuan, aldiz, haur talde batek mundua 50 urteren buruan nola ikusten zuten galderari erantzunez sortutako istorioetatik abiatuta, ikuskizun bakarra elkar-sortu dute.



Bi proiektu hauei esker, konpainiak bi ikasketa nagusi bereganatu ditu; erronka berrien ingurukoa, batetik, eta lorpenen harira, bestetik. Bitartekari artistiko orok zailtasun handi bati egiten dio aurre erronka berri bati ekiten dion bakoitzean; hala nola, prozesuaren garapenari dagokion ezbaiari edo ziurgabetasunari, alegia. Nola egin genezake herritargoa geure proiektu baten bidelagun izan dadin, oraindik deskribatu ere ezin daitekeen une horretatik hasita? Artistak *negative capability* (gaitasun negatiboa) deritzona erraietan hiltzatuta darama eta, honi esker, zalantzazko egoeretan oreka mantentzeko eta nahasmenean bizirauteko ahalmena du. Zinez da funtsezkoa ezaugarri hau sorkuntza prozesu hauetan, zeinetan bidaia bera emaitza baino garrantzitsuagoa baita. Horretaz gain, bitartekariaren beste erronka nagusienetako bat zera da, parte-hartzaileengandik jasotako hamaika ideia eta eduki oinarri hartuta kalitatezko eta zentzuzko proposamena sortzea, hain justu ere. Bestalde, era honetako prozesuen irabazia edo lorpena bi ardatz nagusitan oinarritzen da; alde batetik, prozesu artistikoaren egiazkotasunean eta, bestetik, emaitza aurkezteak gizatalde horri sortarazten dion arrakasta-sentimenduan.

Stalkers – komisario gazteei zuzendutako gailua.

Cristina Alonso, Sälmon Jaialdia, Bartzelona

Azken urteotan, bitartekotza edo arte komunitarioa delako kontzeptuak ospe handiko bilakatu dira guztion ahotan. Alabaina, jardute-eraldaketa hau eta, ondorioz, egungo testuingurua zinez ulertu ahal izateko ezinbestekoa da arrazoi nagusiak zeintzuk izan diren hausnartzea. Horren harira, funtsezkoak izan dira azken garaiotan abian jarri diren hainbat ikuspuntu berritzaile; hala nola, 15M mugimendua, feminismoa, munizipalismo berria eta, oro har, partaidetza eta elkarbizitza modu berriak. Hain zuzen eta ikuspuntu berri hauen ondorioz, bai arte eszenikoen alorrean eta bai [Sälmon Jaialdian](#) ere, giroz aldatu eta barne-hausnarketa prozesuak abiarazi zituzten. Honela, orain arteko *zer* horietatik haratago joan eta *nola* horietan sakonago erreparatzeari ekin diote.

Lehenik eta behin, jardute berri honek sektore honetan garatu daitezkeen harremanak eraldatzean datza; hots, hierarkiak baztertu eta harreman irekiagoak sustatzen ditu. Izan ere, programatzaileekiko edo eta artisteki eraikitzen ditugun harremanak zeharo hierarkikoak dira eta, funtsean, sektorea alderik alde zeharkatzen duen ezaugarri nagusienetako bat da.



Bigarrenik, denbora bera eta, bereziki, denbora eza izan da barne-hausnarketa honek sortarazi zituen kritika askoren iturri. Hau da, arreta handiena emaitza artistikoan baino sorkuntza-prozesuan jartzeak denbora eskatzen du. Ondorioz,

jaialdian parte hartuko duten profesional guztiei bost egunez elkarbizi zezaten eskatu diete. Izan ere, sorkuntza prozesuak zaintzeko beharrezko deritzogun denbora ezak artea bera gauza bihurtzea dakar. Era berean, artelanak emaitza soil modura aurkezten baditugu, sorkuntza prozesuan ehundutako prozesu parte-hartzaileen amarauna itzalean geratu eta ikusezin bilakatuko da.

Hirugarrenik, geure erreferenteak deszentralizatzea ezinbestekoa da, baldin eta egun bizi dugun kultur-kolonizazio honekin amaitu nahi badugu. Honen harira, jaialdiak

Europaren erdialdeko herrialdeengana urreratzeari utzi eta eskua gertuko herrialdeei luzatzea erabaki du; hala nola, Portugal, Italia, Grezia edo Latinoamerika. Izan ere, jakin badakigu amankomunikazio abiatutako ezagutza transmisioak eskarmentu handiko ibilbide irmoa egin duela dagoeneko.

Laugarrenik, artista erromantikoaren ikuspegia desagitea dagokigu; prozesu artistikoa ikerkuntza lan gisa ulertzea, alegia. Izan ere, artista batek bere buruari galderak egingo dizkio, hipotesietan oinarritu eta modu oso kritikoa jardungo da. Zentzu honetan, kritika errealitatea eraldatuko duen bultzada politikoa litzateke. Izan ere, errealitatea irudikatzen duen artea antzua da eta, aldiz, bestelako munduak miatzen dituen, eraldatzailea. Ondorioz, sektore artistikoak botere politiko handia du, irudimenerako berezko gaitasunak ikuspuntu berriak ikusarazten baitizkigu. Oro har, zalantza eta eztabaida bidelagun dituen gizarteak ezberdintasunak eskuzabaltasun handiagoz onartzen saiatu eta jarrera inklusiboagoa azalduko du. Eta, funtsean, hori da arteak eskaini beharko lukeena.

Bost urtez barne-hausnarketan aritu ostean, gaur egun, jaialdi honen ekimen nagusienetakoa bitartekaritza da. Era honetan, bertan aurkeztutako artelanak testuinguruan kokatzeko aukera dago. Hau da, proposamen artistiko orok badu erakustaldirako une aproposa baina, era berean, testuinguruan kokatzeak ezinbesteko garrantzia du. Hortaz, herritargoaren erroetatik abiatzen dira eta artista eta komunitatearen artean giltzarri diren elementu eta eragileekin egiten dute lan.

Hein batean, [Stalkers Proiektua](#) gaztediarekiko harreman-galera horren ondorioz sortu den ekimena da. Horretaz gain, kalitatezko harremanak garatzeko, funtsezkoa da harreman afektiboak iraunkorrak izatea. Abiapuntu hauek ardatz harturik eta ekimenaren zutabe nagusia finkatzeko asmoz, proiektuaren lehen urteko urratsa sei herrirekin harremanetan jartzea izan zen. Eta, aurrerantzean, deszentralizazioan oinarrituz aukeratutako 6 udalerri horiek lau jaialdirekin arituko ziren elkarlanean; zehazki, Sismògraf-Olot, FiraTàrrega, TNT-Terrassa eta Bartzelonako Sälmon Jaialdia. Udalerri hauen konpromezua herriko gazte-talde bati lau jaialdi hauek ezagutzeko aukera eskaintzea zen. Hain zuzen, urteko sasoi bakoitzeko jaialdi batean parte hartuko zuten, zeinetan jaialdi bakoitzaren laguntza eta babesa jasoko baitzuten. Izugarritzko

erantzun ona jaso zuen ekimen honek; izan ere, gazte bakoitzak proiektuarekiko eta urte osorako hartu zuen konpromezua ezinhobeia izan baitzen.

Azkenik, bada aintzakotzat hartzeko gertaera berri bat. Izan ere, 35 urtez itxita egon ondoren, [L'Artesá](#) antzokiak berriz ere atea irekiko baititu Prat de Llobregat udalerrian. Eta, XXI. mendeko antzerkiaren inguruan hausnartzen jarraitu asmoz, antzokian garatuko diren ekimenen % 40a erakustaldiek osatuko dute eta gainerako % 60a, ordea, bitartekaritza-jarduerek.

Zeintzuk dira kultur-bitartekaritza eta bitartekaritza artistikoaren ardatz nagusiak?

Itziar Zorita, EHU/UPV – Ikus-entzunezko Komunikazio Saila



Zer da bitartekaritza artistikoa? Zein da bitartekari baten eginkizuna? Kontzeptu hauek oso argiak ez diren arren, artea, hezkuntza eta komunitatearen arteko elkargunea alderik alde zeharkatzen dute. Egungo testuinguruan, bitartekaritza artistikoa museo eta kultur-erakundeen

alorrean sortu zen, haietan erakusgai zeuden artelan-bildumak era didaktikoan azaltzeko eta publiko jakin batengana urreratzeko asmoz. Aitzitik, bitartekaritza artistikoa ulertzeko modu hau XIX. eta XX. mendeko burgesiaren kultura ondarea bestetik etzen, zeinetan bitartekaritza bera komisariotza edo eta erakusketen baitan soilik jorratzen baitzen. Geroago, kultur-erakundeek ezarritako harresiak apurtzen lagunduko zuten hainbat joera sortu ziren; esate baterako, kultur-arloko ikasketak, hezkuntza eraldaketak, pedagogia kritikoak eta feminismoa bera, besteak beste. Paradigma aldaketa honen ondorioz, bitartekaritza herritargoarengana urreratzeko zubi izatetik, herritargoarekin soinez-soin landutako elkargune izatera bihurtu da. Honela, norantza bakarreko prozesu soil bat beharrean, bitartekaritza norantza eta norabide anitzeko prozesu bizia izatera iritsi da.

Bitartekaritza artistikoari buruzko ikuspuntu berri hau jorratzen duten hainbat proiektu edo eta erakunde antolatu asmoz, hiru ekintza-eremu bereiztu ditzakegu: i) hezkuntza, ii) kudeaketa, programazioa eta komisariotza eta iii) kultur-jarduerak eta ekimen sozialak, zeintzuk aurretiaz aipatutako beste bi eremuak bere baitan hartzeaz gain, kultur-erakundeen harresiak zeharkatzeko ahalmena baitituzten.

i) Hezkuntza:

[Eraikitzen Gaituzten Hitzak](#), Horman Poster: bitartekaritza-prozesua eta sorkuntza eszenikoa da, 13 eta 18 urtekoen arteko gazteei zuzendua dago eta gogoeta performatibo bat proposatzen du gizabanakoaren eta taldearen identitatearen inguruan.

[Gizaphoniak](#): musika klasikoa eta dantza garaikidea gazteengana urreratzeko proiektua.

[Proyecto Levadura](#): sortzaileei zuzendutako egonaldi artistikoak eskaintzen dituen hezkuntza programa da. Egonaldi hauetan, artista bat eta haur talde bat soinez-soin aritzen dira elkarlanean proiektu artistiko bat garatzeko.

[Tipi Elkartoki](#): irakasleekin eta ikasleekin batera garatzen den bitartekaritza-prozesu bat da. Honen bitartez, eskoletako jolasguneak eraldatzeko hausnarketa-lanak eta ekimenak elkarrekin eta amankomunean egitea proposatzen da.

ii) Kudeaketa, programazioa eta komisariotza:

[Laagencia_Escuela a la intemperie](#): proiektu honen helburua komisariotza-formatu ezberdinak nahastea da. Betiere, Bogotá hirian sortu eta garatzen ari diren prozesu artistiko berriak aintzakotzat hartu eta ageriko dauden hainbat arazo errotik lantzeko aukera paregabea da.

[Nuev@s Comanditari@s](#): Mursego taldearen proiektu artistiko ezberdinen aurkezpena da. Horien artean, Mursegok berak Oiongo Bitartean Jolasean erakundearekin eta Idoia Zabaletarekin garatutako proiektua ageri da.

iii) Kultur-jarduerak eta ekimen sozialak:

[Brunnenpassage](#): ArtSocialSpace edo kulturarteko artea eta parte-hartzea bere baitan biltzen eta sustatzen dituen laborategi modura darabilen gune artistiko soziala. Viena kanpoaldeko auzo batean kokatuta dago, leku estrategikoan, alegia.

Cross Border + Flying Fish Connecting Memories: Medina de Rioseco herrian garatutako proiektua da. Bertan, Riosecoko gazte eta adineko talde bat artea, hezkuntza eta esku-hartze sozialaren alorrak batuz lanean diharduten hainbat profesionalekin elkarlanean aritu ziren eta, hain zuzen, haien bizipen eta kontakizunak izan ziren proiektu honen ardatz.

Basurama Zaborra Puztu: Lekeitioko ikasleekin garatutako lan prozesua da. Proiektu honen helburua plastiko-hondakinez egindako burbuila puzgarriak sortzea izan zen. Ostera, hiru puzgarriak Kaleka jaialdiko neguko egitarauaren amaierako emanaldian egon ziren ikusgai.

Kultur-bitartekaritza eta bitartekaritza artistikoaren iturburua ezagutzeaz gain, ildo honetako hainbat proiektu esanguratsu ezagutu ahal izan ditugu. Alabaina, oraingoan, bitartekaritzaren ardatz bilakatu diren ideiak hausnartzeko garaia heldu da. Honela, zertarako, nola, norekin eta zeri esker lan egingo dugun finkatzea ezinbestekoa da. Oro har, bitartekaritza prozesu bat abian jartzen dugunean, gizartean nolabaiteko eragina izan dezan bilatzen dugu (zertarako). Badira, ordea, aintzakotzat hartu beharreko beste hainbat oinarri; hala nola, ikus-entzulegoa aktibatzea, burujabetzea, emaitza artistikoa, proiektua bera garatzeko beharren eta interesen arteko gatazka bideratzea, prozesua eta emaitzaren arteko hutsunea zentzuz elikatzea eta hezkuntza estetikoa zaintzea. Bitartekaritza proiektuen lan egiteko moduari dagokionez (nola), prozesua bera hizketa eta topagune gisa ulertzea ezinbestekoa da. Horretarako, entzutea, hizkuntza eta erabilera aniztasuna eta parte-hartzaileen izaeran bizipen horrek utziko duen arrastoa oinarrizko baldintzak dira. Bestalde, maila honetako proiektuen bidelagunak aukeratzeak (zeinekin) arreta handia eskatzen du; izan ere, eragile ezberdinek herritargoan edo eta sare sozialetan burutzen duten eginkizun nagusia zein den jakin behar dugu lehenik. Gainera, komunitateko jardute profesionalak eta amateur deritzenak bereizteaz gain, parte-hartzaileen konpromezu maila ere neurtu beharko dugu. Azkenik, bitartekaritza proiektu bat gauzatzeko hainbat zutabe nagusi finkatu behar dira aurretiaz (zeri esker); adibidez, eragileen konpromezua eta interesa, proiektua beraren bilakaera, ustekabeko gertakizunen onarpena eta egokitzapena eta, noski, denbora-dirua-espazioa hirukoa, hau da, proiektuaren arrakastaren baldintza nagusia, funtsean.

Hainbat bitartekaritza proiektu garatu ostean, Itzietan berak prozesu-bidean topa genitzakeen hainbat zailtasun mahairatu ditu. Alde batetik, pausuak arreta handiz eta

irmoki emateko gomendioa goraiatu du, izan ere, antzinako ekoizpen-logikak uztartutako bidea jarraitzea erraza eta ohikoa omen da. Hau da, oraindik ere ageriko emaitzak eta ekarpen kuantitatiboak bilatzen ditugu, artista eta herritargoaren arteko harreman paternalista baten babespean. Bestetik, denboraren trataera egokia ezinbestekoa dela ohartarazi du. Hain zuzen, proiektuaren izaera elkar-sorkuntza irekia bada, zeinetan eragile ezberdinak eta ezusteak elkarbiziko baitira, parte-hartzaileen beharrezanean eta motibazioari egokiro erantzutea funtsezkoa da. Eta horrek denbora darama berekin. Soilik, denbora modu egokian erabiltzeak lortuko du emaitza kaltetu gabe prozesua zaintzea. Gainera, denboraren zainketak “ondorengo egunak” ere biltzen ditu bere baitan. Hau da, erakunde eta gizatalde ezberdinekin elkarlanean aritu ondoren, ezinbestekoa da harreman iraunkorrak eraikitzea, ostera eta prozesua amaitu ondoren, herritargoaren artean nolabaiteko abandonu sentazioa errotu ez dadin.


Bitartekaritza martxan I Itziar Zorita

Jardunaldiotan aditzera eman den bezala, bitartekaritza artistikoa sorkuntza ulertzeko ikuspuntu berria da eta, ondorioz, egiletzarekiko jarrera ezberdina ageri da. Zein da elkar-sorkuntzarako bidea? Posible al da elkar-sorkuntza prozesu bat garatzea norbanakoaren izaera izpirik galdu gabe edo eta ahalmen handiagoko erakunderen batek besteren bat itzalean utzi gabe? Badira hainbat tresna edo metodologia ezberdinak norbanakoaren, taldearen eta guztien interesen arteko lehia edo gatazkak bideratzen lagunduko digutenak. Jarraibide horiek aintzakotzat hartzea garrantzitsua da aurrera eramanean dugun elkarlan hori zinezkoa eta emankorra izatea nahi badugu.

[Keinu-Irakurri](#) laborategia Denbora Errealeko Konposizioaren (DEK) paradigmatik abiatzen da eta, zehazki, Joao Fiadeiro eta Cláudia Dias sortzaileek ekin zioten metodologia berri hau lantzeari, beste hainbat artistekin batera. Keinu-Irakurri metodologiaren helburua DEK deritzon teknika beste esparru batzuetara egokitzea edo horiekin hibridatzea da. Hartara, asmoa lanerako eta elkarlaneko diseinurako tresna metodologiko bat sortzea da, lankidetzako eta elkar-sorkuntzako prozesuen mesedetan, norberarena eta kolektiboa modu orekatuan konbinatuta, eta gorputzaren, espazioaren

eta entzutea/behatzearen performatibitatea hitzaren eta logika diskurtsiboaren performatibitatearen aurrean jarrita.

Ariketa honen helburua Keinu-Irakurri metodologia ezagutaraztea eta esperimintatzea izan da eta, horretarako, tailerra bi saiotan bereizi da; lehenengoan, metodologia zertan datzan azaldu du Itziarrek eta, bigarrean, Keinu-Irakurri delakoa bitartekaritza testuinguruetan nola ezarri daitekeen hausnartu eta frogatu du ariketa konplexuago batzuren bitartez.



Lehenengo saioan, Keinu-Irakurriren “jolas-arauak” ezagutu ditugu; hau da, %80a Irakurketa eta hausnarketaren bitartez jorratzen dela ikasi dugu eta %20a, aldiz, Keinuen bidez. Arau honen helburu nagusia ez da sorkuntza-kolektiboan norbanakoaren parte-hartzea sustatzea baizik eta, irakurketatik eta etengabeko hausnarketatik abiatuta, sortzen diren keinuak edo bultzadak bilakatzea artelanaren sorburu. Honela, gertaera edo ekintza bera izango da ardatz nagusia; eta, era berean, ekintza hori irakurritz-irakurri eta etengabeko keinuei erreparatuz sortzen den ariketa elkarbanatzearen bizipen kolektibotik sortuko da.



Oinarrizko arau horiek martxan jartzeko lehen ariketa jolas gune zehatz batean ezarritako objektu ezberdinekin jostatzea izan da; kasu honetan, lurrean markatutako lauki batean, hain zuzen. Lehenik eta behin, parte-hartzaile bakoitzak jolas gunean ezarritako objektuen arteko harremana irakurri eta hausnartu behar izan du eta, oster, amankomuneko norantza bat proposatu, iradoki edo baieztatu.

Jokoa amaitu denean, parte-hartzaileek ariketa poztasun handiz bizi izan dutela adierazi dute; izan ere, hitzik gabeko elkartasun horren babesa goraiatu dute denek, zeinetan esplizituki adierazi gabe norantza berdinerara zeramatzaten keinuak elkarbanatu baitituzte. Gainera, Keinu-Irakurri metodologiak agerian utzi du bakoitzaren rola edo taldean erlazionatzeko dugun berezko inertzia hori. Ondorioz, talde edo erakunde batean garatzen diren barne-harremanak hausnartzeko baliagarri gerta daiteke.

Zirkoa barakaldotarren memorian

Malas Compañías, Mikel Pikaza

Barakaldoko [Malas Compañías](#) konpainiako kideek, Mikel Pikazaren gidaritzapean eta Bagatzako Gure Toki eta Anaiak Parkeko Zentro Soziokulturalarekin elkarlanean, adineko pertsonekin landu duten proiektua da. Memoria berreskuratzeko bidaia honetan, Barakaldora gerturatzen ziren garaiko zirkoak gogora ekarriz jardun dira. Elkar-sorkuntza lan hau, udalean bertan eta jardunaldien aurretiko hiru hilabeteetan zehar garatzeko, Artekale eta Barakaldoko Udalak aukeratu zituzten hiru proiektuetariko bat da. Ostera, jardunaldiotan aurkezteko konpromezua zutenak, alegia. Eta, hain zuzen, Artekalek Barakaldoko herritargoarekin garatutako elkar-sorkuntza proiektuak aurkezteko deialdia zabaldu aurretik, Malas Compañías dagoeneko bazegoen urte osorako bitartekaritza-proiektu baten zirriborroan murgilduta.

Egun batez, adineko pertsonen osaturiko bi talderekin aritu ziren elkarlanean; eguneko zentro bateko kideak, alde batetik, eta gizarteratzeko laguntza-zentro batetik etorritako agureak, bestetik. Hala, gizarteratzeko laguntza-zentroetan elkarlana ohiko dela agerian geratu zen; izan ere, bertako kideak gogotsuago agertu baitziren elkarlanerako unea iritsi zenean.



Konpainiak proposatutako proiektu honek memoria eta zirkoa ditu ardatz. Eta, zehatz-mehatz, lehen pausua antzinako argazki erakusketa bat antolatzea izan zen. Bertan, garaiko zirko eta clown disziplinetako aintzindariak ageri ziren, besteak beste Toneti handia, eta Barakaldoko leku ezagunenetarikoak berreskuratzen zituzten, gainera. Bestalde, eta memoria piztu eta artea umorez lantzeko asmoz, ikus-entzunezko materiala ere bildu zuten. Era honetan, Txomin del Regato edo Baskonia anaien ildoko artista eta clownen performanceak biziki gozatu ahal zituzten. Benetan zirraragarria izan zen zirkoak kaleak ziprizzintzen hainbat hamarkada daramatzala egiaztatzea eta, batez ere, herritargo sena indartzeko zirkoak duen ahalmena aldarrikatzea.

Sareak. Auzoak ehunduz.

Organik Dantza, Natalia Monge



“Zirkoa barakaldotarren memorian” ez da Barakaldoko jardunaldien aurretiko bi hilabeteetan zehar garatu den bitartekaritza-proiektu bakarra izan.

Izan ere, [Organik Dantza](#) konpainia ALAIK (AAVV Mendi Alde) taldearekin aritu baitzen elkarlanean zenbait asteetan zehar, konpainia beraren Sareak ikuskizuna abiapuntu harturik. Hain zuzen, eta lan honen bitartez, euskal emakume saregileen lana goraiatzea dute helburu.

Jardunaldiotan, Alaiak taldeko emakumeek Natalia Mongeren gidaritzapean, dantza-pieza berezia aurkeztu dute gorputz kontzientzia eta mugimenduaren bitartez. Gainera, Barakaldoko emakumeen memoria historikoa berreskuratu dute, emakume saregileek urteetan zehar itzal-itzalean egindako lana agerian jarritz.

Dantza pertsonen bizitzaren parte da.
Natividad Buil, Trayectos Jaialdia, Zaragoza

[Trayectos Jaialdia](#) gauzatzen duten taldekideei “dantzariak kalera ateratzen dituztenak” deritze. Hau da, Madrid eta Bartzelona bezalako hiriekin konparatzen badugu, Zaragoza periferiako zonaldea dugu. Hala ere, 2004. urtetik hasita eta gaurdaino, hirian garatzen diren dantza egitarau zabalenerikoa Trayectos Jaialdiak biltzen du. Horretaz gain, bertako, Estatuko eta nazioarteko proposamenak zentzuz eskaintzen ditu. Kultur-ekimen

hau aurrera eraman duen lantaldeak kultura elkarbizitza modura ulertzen du, hau da, haien ustetan kulturak geure pentsamoldeak, irudiak eta baloreak eraiki eta egokitzen ditu. Laburbilduz, kultura eta ondasun soziala elkarren artean estu-estuki daude elkarloturik; izan ere, geure konfidantzazko giroan murgiltzeaz gain, elkarlanerako geure ahalmena, hiritar kontzientzia eta balore etikoak ere zeharkatzen baititu.

Trayectosek loturak eraikitzen ditu etengabe. Hortik abiatuta, elkarlana, konfidantzazko harremanak eta elkarbizitza sustatzen ditu. Horrexegatik, jaialdia kalean garatzen da, guztion espazio amankomunean, alegia. Behin bakarrik erabili zuten ohiko espazio bat proposamen bat aurkezteko; *breakdance* ikuskizun bat oholtzaratzeko izan zen gainera, hau da, normalean kalean ikusi daitekeen diziplina. Hain zuzen, kultur-eliteek sarritan gutxiesten duten diziplina hau nabarmendu eta aintzakotzat hartzeko helburuarekin pentsatutako ekintza izan zen. Horretaz gain, *trayecto* (ibilbide) hitzaren esanahiak parte-hartzaileek ikuskizun batetik besterako ibilbidea elkarbanatzearen ekintza bera azpimarratu nahi du, jaialdiaren arrazoibide nagusia faktore soziala dela berretsiz.



Natividad Buil Jaialdiaren zuzendariak herritargoan eta bitartekaritza artistikoaren ildoan garatzen diren ekimen eta proiektu nagusienak aurkeztu ditu. “T con Danza” izan da horietako bat, zeinetan aditu batek dantza inguruko gaiak jorratzen baititu ikus-entzulegoarekin, ohiko publikoa ez den horien

artean zailagoak diren gaiak zehazki; esate baterako, dantza ikuskizun batean noiz txalotu. Ekintza hau jaialdiaren hezkuntza eta hausnarketa programaren barne kokatzen da eta bi helburu nagusi ditu; bata, artistikoki estimulatzea eta, bigarrena, dantza alorreko konpainia eta profesionalak egonkortzea.

“[Pensando la danza](#)” ekimenak antropologia, arkitektura, zinemagintza edo zientzia alorreko adituak hilabetean bitan biltzen ditu, nor bere jakintzatik abiatuta, dantza garaikidearen inguruan hausnarketa egiteko. Topagune honek, dantza eta ekintza artistikoa berari buruz hainbat alorretik gogoeta egin eta ohiko guneetatik haratago joanaz, ezusteko elkarrekintzak sortzea ahalbidetzen du.

“[Acueloabierto](#)” dantza garaikidea ardatz duten jaialdi ezberdinek osatutako sarea da. Jaialdi hauek ez ohiko espazioetan garatzen dira, Trayectos jaialdia bezala. Sare honek harreman-eragile, topagune eta sinergia-sortzaile lanak egiten ditu.

Bestalde, Trayectos jaialdiak beste hainbat eragileren bultzada eta laguntza jasotzen du; hala nola, Zinentiendo (Zaragozako Lgtbiq zinema jaialdia), Ciclería (bizikleta paseoa hirian zehar), Hilvana (telazko artelanak dantzari eta gonbidatuentzat), Zaragozako Unibertsitatea (filosofia, ingenieritza, robotika, eta abar).

Azkenik, jaialdi honen ekimen eta proiektuetariko batzuk dantza komunitarioa lantzen dute. Izan ere, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak ezartzen duen bezala, pertsona orok du eskubidea gizarteko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko. Honen ildora, dantzak gorputzarekin erlazionatzeko modu berezia izateaz gain, herritargoaren parte-hartzeko modu ezberdinak sustatzeko ahalmena du. Zentzu honetan, dantzak badu bizipen artistikoa pertsona oroengana urreratzeko indarra, jatorria edo bizi-egoera zeinahi direla ere. Ezaugarri hauek jarraituz, badira aintzakotzat hartu beharreko hainbat proiektu; esate baterako, mapa koreografikoa edo orube hutsetan gorputzarekin jolasean aritzea helburua zuen eta bost urtez abian egon zen proiektua, alegia; edo mosaiko parte hartzailea deritzona, zeinetan tutoretza-bideo bitartez bidalitako dantza edo mugimendu proposamen bati erantzunez, herritarrek bidalitako sorkuntza-bideoekin mosaiko bat eratzen baita. Dantza-makina dugu beste adibide argi bat; proiektu honen bitartez, eskola bateko jolastokian soinu eta musika ezberdinak sortzen dituen makina bat jarri eta ekintza horrek sortarazten dituen erreakzioak hausnartzen dira. Gorputzaren espazioa deritzon proiektuak, aldiz, dantza tailerrak eskaintzen ditu, betiere pertsonen onura fisiko eta emozionala helburu.

Posible al dira beste jaialdi batzuk? Iker Tolosa, Errenteriako Udala

Azken urteotan, bitartekaritza kontzeptua indar handiz gailendu da bertako eta Estatuko kultur-politikaren esparruan. Arteen alorreko profesionalen eta konpainia askoren proiektu artistiko askok ere bere egin dute sorkutza eredu hau. Hori gutxi balitz, dirulaguntza eta laguntza publiko askoren deialdietan, kultur kudeaketa garatzeko

ezinbesteko baldintza bilakatu da bitartekaritza. Alabaina, askotan ez dakigu oso ondo zertan datzan eta, era berean, bitartekaritza proiektuak garatzeko ez da ez denbora tarte egokirik ezta baliabide ekonomiko duinik ezartzen ere.



Azken garaiotan garatu diren bitartekaritza prozesuetan, badira bereizi beharreko bi ardatz. Alde batetik, sorkuntza horretan parte hartzen duten erakundeen baliabideak eta, bestetik, prozesua beraren irekiera maila. Honela, baliabide murriztak dituen erakunde batek prozesu ez oso

ireki batean parte hartzen duenean, asertziozko prozesua (*proceso afirmativo*) sortzen da; hau da, artistaren helburuetara egokitutakoa. Baliabide nahikoak dituen erakunde batek irekiera gutxiko prozesuan parte hartzen duenean aldiz, ugalketa prozesua garatuko du (*proceso reproductivo*); hau da, artistak berak desio duen helmuga zehatz horretarantz gidatuko ditu parte-hartzaileak. Baliabide eskasak dituen erakunde batek nolabaiteko irekiera onartzen duen prozesu batean murgiltzen bada, prozesuak egitura dekonstruktiboa (*proceso deconstructivo*) jarraituko du, hausnartuko dituen noranzkoak anitzak izango baitira. Azkenik, baliabide ugariz gozaten duen erakunde batek irekiera zabaleko proiektu batean parte hartzen duenean, prozesu eraldatzailea deitzen da (*proceso transformativo*). Erraz aurki ditzakegu azalpen hauek argituko dizkiguten ekimenak; hala nola, asertziozko prozesua edo prozesu afirmatiboaren adibide gisa bisita gidatua dugu, zeinetan edukieraren aurretiazko ezagutzak mutur batetik bestera bidaiatzen baitu. Ugalketa prozesua, aldiz, tailerra litzateke, ezagutzak modu irekian helarazten dituen tailer bat, non helburua bera edo zinezko norantza ugaltzen baita. Prozesu dekonstruktiboa hezitzaile batek diskurtsoa bera deseraikitzen duenean ematen da; era honetan, ez du mezu zehatzik zabalduko eta diskurtsoa eraiki duten adierazpenak desegingo ditu. Azkenik, prozesu bati eraldatzailea deritza, ikus-entzulegoa, konpainia bera edo eta erakundeak eraldatuko dituen izaera kritikoa sustatzen bada.

Bestalde, bitartekaritza prozesuak bi ezaugarri nagusiren baitan sailka daitezke, prozesu parte-hartzaileak edo kolaboratiboak, alegia. Lehenengo kasuan, artistak erabakitzen du zein egiteko zehatz duen parte-hartzaile bakoitzak. Joko-arauak jada ezarrita daude eta

ezagutza norantza bakarrean mugitzen da, nagusiki. Bigarren kasuan, erakundeak eskumen handiagoa du eta, oro har, parte-hartzaileen interes eta beharrak aintzakotzat hartu ohi dira. Honela, prozesua hasi baino lehenago norbanakoak soinean dakarren ondasuna edo eskarmentua ez da itzalean geratzen. Prozesu hauetan, eztabaida eta elkar-ulertzea funtsezkoak dira eta, noranzko bakarretik urrunduz, parte-hartzaileek ezagutza berriak bereganatzen dituzte eta, nolabait, eraldatu egiten dira. Prozesu irekiak dira eta, ondorioz, ez dute hasiera edo amaiera zehatzik eta oreka zalantzan aurkitzen dute.

Kontraesanak bitartekaritza prozesu ooren arte eta parte dira. Era berean, artistaren bikaintasuna eta prozesu parte-hartzaile/kolaboratiboen artean sortzen den dikotomian dute oinarria. Hau da, artistaren sorkuntza eta izaera kritikoak indarra galtzen dueneko ideia, halako prozesu bati ekiteko barru-barrutik jaiotzen zaizkion berezko interesei kontrajarria. Halako eztabaidak bideratzeko ezinbestekoa da bitartekariaren lana. Bitartekaritzan jarduten diren adituen prestakuntza eta profesionalizazioa funtsezkoak dira horretarako; izan ere, erakundeen artean sortu daitezkeen tirabirak baretzea edo eta kezkak argitzea oinarrizko egitekoak dira elkar-sorkuntza artistiko bat egokia eta zinezkoa izan dadin. Azkenik, denbora litzateke bitartekaritza prozesu ooren ardatz nagusia. Honen harira, kultur-erakundeek barne-eraldaketa prozesua bere gain hartu dezaten ezinbestekoa da, neurri hauetako proiektuak duintasunez garatu daitezen hasiera-hasieratik eta, batez ere, amaierararte.

Ondoren, Iker Tolosak gaurdaino garatu dituen bitartekaritza artistikoko proiektu nagusienetarikoz batzuk aurkeztu ditu; hala nola,

[Atlantikaldia](#): Atlantikaldia, kultur topagune eta kulturarteko musika jaialdia, 2014.

urtean sortu zena hiru ardatz nagusiren gainean: Errenteriaren itsas memoria berreskuratzea, herria mundura begira jartzea eta mundua herrira begira jartzea. Programazioa bertako herritargoaren proposamenetatik abiatuz egituratzen da.

[Olatu Talka](#): Olatu Talka kultur jaialdia Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutza proiektua bultzatzeko jaio zen 2010ean; behin Kultur Hiriburutza bukatuta, Olatu Talkak bere ibilbidea jarraitzen du, orain arteko helburu berei loturik eta hiria egin leloari jarraituz. Olatu Talka hiria eraikitzeke jaialdia da, lankidetzaz bide berriak

irekitzea, espazioei beste erabilera batzuk ematea, eta artearen eta kulturaren bidez gizartearen kritika gaitasuna lantzea lortu nahi du, besteak beste.

[Euskal Herria Zuzenean](#): Ipar Euskal Herriko gazte talde batek irabazi asmorik gabe antolatutako jaialdia da. Jaialdi honen izaerak hainbat ardatz ditu abiapuntu; hala nola, feminismoa, antikapitalismoa, ekologia, sexu askatasuna, justizia soziala, internazionalismoa, aniztasun kulturala eta bazterkerien aurkakoa.

[Corners of Europe](#): Europako sortzaile eta ikus-entzulego ezberdinak harremanetan jartzen dituen proiektua da eta hainbat jatorri eta diziplinatako artisten arteko lankidetzak proiektuak bultzatzen ditu.

Mahai-ingurua, Euskadin bitartekaritza lantzen duten ekintzaileen eskutik.

Parte-hartzaileak:

- Aitziber Atorrasagasti, **Kultura Sustatzeko Zuzendaria** [Eusko Jaurlaritza – Kultura Saila](#)
- Iker Tolosa, [Errenteriako Udala](#)
- Mainer Illana Ezpeleta, [KALEKA](#) – Lekeitiko Nazioarteko Kale Arteen Jaialdia
- Marina Urrutikoetxea, [Sarean](#) - Bilbo
- Andrea Arrizabalaga, [Artaziak](#)
- Unai López de Armentia, [Parasite Kolektiboa](#) – Gasteiz



Auzoan Artez jardunaldietako mahai-inguruak sustatu dituen eztabaida ezberdinen xehetasunetan murgildu aurretik, bertan partu hartu duten adituak eta erakunde ezberdinak aurkeztea komeni da. Alde batetik, Aitziber Atorrasagasti eta Iker Tolosa izan ditugu solaskide; bi aditu hauek bitartekaritzaren alorra politika publikoen esparrutik jorratzen dute; Aitziberren kasuan, autonomi erkidegoko testuinguruan eta Ikerrek, aldiz, Errenteriako Udalaren babespean. Bestetik, Maider eta Marina kultur-egitarauen gidaritzapean ari dira; izan ere, batak jaialdi bat eta besteak kulturetxe bat kudeatzen baitute, hurrenez hurren. Bi kasu hauetan, eraldaketa prozesua erroitik bizi izan dute, espazio horietan gertatzen dena zeinek erabakitzen duen zeharo aldatu baita. Azkenik, Unai eta Andrea izan dira geure artean, bitartekaritza prozesuak hurbilagoko ikuspuntu batetik ernaltzen dituztenak, alegia; artistaren bizipenetatik lehenengoak eta hezkuntza artistikotik, bigarrenak.

Mahai-inguruko eztabaida edo hizketaldiak galdera batzuren inguruan sortu dira; hala nola, zer da bitartekaritza artistikoa zeuen elkarte edo erakundearen ikuspuntutik? Zeuen eskarmentutik abiatuta, zeintzuk dira zinezko bitartekaritza prozesu batek arrakasta izan dezan aintzat hartu beharreko oinarri nagusiak edo gainditu beharreko oztopoak? Zein eraldaketa antzeman dituzue komunitatean artista, herritargoa eta erakundearen arteko harremana eraldatu ostean?

Lehenengo galderari erantzunez, definizio aukera anitzak proposatu dituzte; guztiak, harreman motaren arabera, hain zuzen. Esate baterako, Maiderrek sorkuntza prozesuen eta prozesu pedagogikoen artean proposiziozko harremanak garatzearekin parekatu du bitartekaritza; hau da, ezagutzak parekotasunez elkarbanatzearekin, alegia. Bestalde, Marinak adierazi duenez, bitartekaritzak ekintza artistikoaren eta ikus-entzulegoaren arteko erlazioak izaera kritikoaz eraiki beharko lituzke. Aitziberren ahotan, aldiz, bitartekaritzak testuinguru berria uztartzeko ateak ireki dizkigu, erlazio-sareak sortuz eta mantenduz ehunduko dugun amarauna, alegia.

Bitartekaritza ariketak deritzen ekimen zehatz batzurengan espero dugun eragin edo inpaktuari dagokionez, ikuspuntu interesgarriak azaldu dira. Honen harira, Unai zera azaldu du, artea zertarako egiten zuten galderari erantzunez hasi zirela bitartekaritza lantzen. Izan ere, euren gertueneko testuinguruan nabarmentzeko aitzakia izan zen abiapuntu nagusia. Hain zuzen, Errenterian jorratutako lanaren antzera; Ikerrek esparru

artistikoa eta herritargoaren arteko harreman gisa azaldu baitu bitartekaritza, zeinetan bigarrenak, gutxienez, aberastuak irtengo baitira. Herritargoari ez dagokio ordainetan entsegu irekia ikustea soilik. Hain zuzen, bitartekaritza prozesu batek inpaktu handiagoa eragin beharko du epe ertainera edo epe luzera proiektua jaso duen komunitatean, dela ekonomia aldetik edo ezagutza aldetik.

Azkenik, Andreak bitartekaritza bera ezagutza esparru bat dela adierazi du, jakintza eremu bat, alegia. Eta alor guztiek bezala, erreferentziak eta joera ezberdinak ditu ardatz. Honen arabera, ezagutza esparru hau, besteak beste, ekoizpen artistikoetan, museoetan edo zuzeneko arteetan erabiltzen den ikasketa prozesua da. Honen harira, Madrilgo “Pedagogías invisibles” taldeak sortu duen dokumentu markoa aurkeztu du, zeinetan Estatuko herrialdi ezberdinetan bitartekaritzari buruz jaso dituzten ekarpen ezberdinak biltzen baitira.

Bigarren galderak, aitzitik, bitartekaritza prozesu egoki bat garatu ahal izateko kontutan hartu beharreko oinarriko ezaugarriak eta bidean sortu litezkeen oztopoak zeintzuk diren mahaigaineratu ditu. Oraingo honetan, hizlariak erantzun ezberdinak eta oso anitzak ekarri dituzte, baina denek ikuspegi amankomun bat partekatu dute. Hain zuzen, guztiek dakusate denboraren erabilera egokia dela ardatz nagusiena. Izan ere, soilik bi asteko tartean ikuskizun zehatz eta itxia elkar-sortzeko denbora besterik ez dago; ezinezkoa da, kasu horretan, haratago joatea. Honen harira, Aitziberrek erakunde publikoen denborarekiko jarrera aldatzen ari dela ziurtatu du. Nonbait, Eusko Jaurlaritzaren Bitartez dirulaguntzak bitan bereizteko asmoa dagoela azaldu du; bitartekaritza lanak urtebeteko epean lantzen dituzten proiektuak babesteko, alde batetik, eta epe luzeagoan jorratuko direnentzat, bestetik.

Horretaz gain, bitartekaritza prozesuak dakarren paradigma aldaketa ere izan da eztabaidagai. Izan ere, garai batean konpainia batek kultura sailera jotzen zuen eta, gaur egun aldiz, beste hainbat bitartekari daude jokoan; hala nola, bizikidetasun saila esate baterako, edo hezkuntza saila, institutuak edo auzo-elkarteak, besteak beste. Zentzu honetan eta bitartekaritza ardatz hartzen duen egungo testuinguruan, kultur-eragile orok beren lekua berreskuratu eta harreman-norabide berri hauen artean moldatzen ikasi beharko dute. Gainera, herritargoak berak zuzenean erakundeekin harremanetan jartzeko joera garatu du, zerbitzurako erlazio berriak eraikitze asmoz, alegia.

Ondorioz, jaialdi bat eskaintza soil bat izatetik, erakundearen eta herritargoaren arteko harreman ireki baterako proposamen bat izatera bilakatu da.

Bestalde, Andreak azpimarratu du bitartekaritza prozesu bat hasi baino lehen marko kontzeptual bat ezartzea ezinbestekoa dela; izan ere, hori egin ezean, ezustekoak, espero ez ditugun emaitzak edo eta interes kontrajarriak sor daitezke. Hortaz, oinarriak aurretiaz finkatzea funtsezkoa da.

Azkenik, Aitziberrek politika publikoetatik zein irizpide jarraitzen dituzten zehaztu digu, bitartekaritza proiektuak hautagai izan daitezkeen ala ez finkatzeko. Honela, proiektu batek berezia edo singularra behar du izan, berrikuntza soziala eskaini beharko du, ikus-entzulearenganako interesa aintzakotzat hartu eta eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlana sustatu beharko du; noski, euskara ardatz izango du eta genero-perspektibaren ikuspuntutik abiatuta jorratutako proiektua izango da.

Hirugarren eta azken galderari dagokionez, parte-hartzaileek bitartekaritza-prozesu baten ostean eraldaketarik jasaten duten hausnartu dugu. Hala ere, gai honen inguruan gogoeta egin eta eraldaketarik egon ote den zinez hausnartzeko, prozesua amaitu ondoren denbora tarte utzi eta proiektuarekiko perspektiba hartzea ezinbestekoa dela ondorioztatu da. Dena den, mahai-inguruko parte-hartzaileak baikor ageri ziren; izan ere, bitartekaritzari buruzko jardunaldiok euskal kultura alorraren babespean antolatze hutsa arrakastatsua dela ziurtatu baitute. Funtsean, egungo testuinguruak jasan duen eraldaketaren islada da-eta.


Bitartekaritza martxan II

Itziar Zorita

Itziar Zoritaren gidaritzapean antolatutako tailerraren bigarren saioak konplexutasun handiagoa zekarren berekin. Hain zuzen, elkar-sorkuntzarako Keinu-Irakurri metodologiatik abiatuta eta parte-hartzaileak lehen saioko hastapenak bereganatu dituztela kontutan harturik, ekintza haratago eramán dute.



Oraingoan, parte-hartzaileak hitzekin eta esaldiekin aritu dira, objetuekin beharrean. Era honetan, norantza amankomun horrek aldaketak jasaten ditu eta keinu berri bakoitza irakurtzeak beste esanahi bat hartzen du. Eta bi taldeetako norantza amankomun horrek ondorengo galderak erantzutera bideratu die: zeri deitzen diogu erkidegoa? Zer darama bitartekari batek mailetan?



Zirkoa, gazteenganako urreratze-tresna gisa.

Zirkozaurre

Azkenik, Artekalek bitartekaritza prozesu gisa Barakaldon garatu zedin aukeratutako hirugarren eta azken proiektua aurkeztu dute [Zirkozaurre](#)ko kideek. Bilboko Sorkuntza Lantegi honetako konpainia eta irakaslegoaren laguntzarekin eta Gorka Pereiraren



gidaritzapean, zirkoa artista eta ikus-entzuleenganako harremana estutzeko sortze-tresna gisa landu zuten Barakaldoko [Save the Children](#) erakundearekin soinez-soin.

Lau saioren buruan, Zirkozaurrek norbanakoarekiko konfidantza eta elkarrenganako sostengua landu ahal izan du Save the Children erakundeko haurrekin. Hezkuntza zentro bateko soinketa gelan garatu zen ekimen honen bitartez, oinarri teknikoak, alderdi ludikoa eta kontrolpeko arrisku ezagutzak jorratu zituzten. Era berean, edukiera artistikoak bereganatzeaz gain, elkartasuna, adiskidetasuna eta talde-lana lantzea izan da helburu nagusia.



Azken gogoetak

Jardunaldiotan zehar, bitartekaritza artistikoa lantzen duten Euskal Herriko, Estatu mailako eta nazioarteko hainbat proiektu aurkeztu dira. Bertan, formatu anitzak, testuinguru ugari eta erakunde desberdinak ageri dira. Ondorioz, argi geratu zaigu gogoeta nahitaezkoa dela harreman artistiko berriek eskaintzen dituzten aukera zabalen inguruan.

Tailerrak, hizketaldi irekiak, ikuskizunak, aurkezpenak eta eztabaidak izan dira jardunaldi hauen zutabe. Hortaz, abiapuntu ederra suertatu zaigu, testu honen sarreran aipatu bezala, artearen sorkuntza, ekoizpena eta banaketaren inguruan sortzen diren harremanak berrikusi eta eraldatzeko. Gainera, jardunaldiotan, bide berriak zabalduko dizkiguten estrategia ezberdinak mahairatu dira. Era berean, proposamen guzti hauek egungo administrazio-sistemak ezarritako oztupoak ekiditen eta etorkizuneko ekintza edo proiektuak zentzuz ordenatzen lagundu diezagukete.

Bestalde, artearen alorreko adituek bitartekaritza prozesuen bitartez beregatutako jakinduria partekatu dute eta, bizipen horietatik abiatuta, artea zertarako, zeinekin eta zein eraldaketa asmorekin jorratzen dugun hausnartu ahal izan dugu. Alabaina, galdera hauetariko bakoitzak zalantzaz beteriko hamaika erantzun dakartza berekin. Baina, gutxienez, Artekaleren gogoeta jardunaldi hauek bitartekaritzari buruzko terminologia zehazteko hastapen irmoa izan dira. Hain zuzen, eragile ezberdinen arteko harremanak finkatzen lagunduko digute eta, noski, elkarrekintza anitzetatik sortu diren etorkizuneko proposamenek erein dute jada hazia.

auzoan artez

creando en comunidad

Jornadas de mediación
Maiatzak 2, 3 Mayo 2019
Barakaldo

Organiza



Patrocinan:



Colabora

